

Alberto Iñurrategik irekiko du txotx denboraldia



Alberto Iñurrategi, espedizioan / BAT BASQUE TEAM

Sagardo Berriaren Eguna urtarrilaren 15ean egingo da Astigarragako Gurutzeta sagardotegian

DV

Martes, 2 enero 2018, 15:13



Sagardoaren Lurraldea elkarteak **urtarrilaren 15erako** antolatu du XXV. **Sagardo Berriaren Eguna**, aurtengo txotx denboraldiari hasiera emateko. Aurtengo gonbidatua **Alberto Iñurrategi** eskalatzaille eta mendizalea izango da. **Zorione Etxezarraga** Astigarragako alkate eta Sagardun Partzuergoko lehendakaria Sagardoetxean ospatuko den aurkezpen **ekitaldiko buru** izango da, Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Aldundiko ordezkariekin batera, eta uzta berria aurkeztu eta sagarraren eta sagardo berriaren ezaugarrien berri emango du, besteak beste.


Sagardoaren Lurraldea elkarteko arduradunek jakinarazi dutenez,

urtero bezala, 25. aldi honetan ere, ekitaldiko unerik garrantzitsuena txotx irekiera izango da. Horrela, Astigarragako Gurutzeta sagardotegian 'Gure Sagardo Berria' oihu egingo du Alberto Iñurrategik lehen kupela irekitzean, eta horrela, 2018ko sagardo denboraldi berriari hasiera emango dio.

Aldez aurretik, Sagardoetxeko sagastian **sagarrondo berri bat landatuko du** Iñurrategik. "Ekitaldi sinboliko horrekin, naturaren dinamikotasuna eta berritzeko ahalmena azaldu nahi dira, urtetik urtera mahai batean sagardoaren bueltan esertzeko aukera eskaintzen baitigu", adierazi dute.

Aurten, gainera, Sagardo Berriaren Egunaren **25. edizioa izanik**, aurreko urteetako gonbidatuetako batzuk 2018ko txotx irekieran izango dira. **Aurreko urteetako gonbidatuen artean daude Andoni Egaña** bertsolaria, **Julian Retegi** pilotaria, **Juan Mari Arzak** sukaldaria, **Joane Somarriba** txirrindularia, **Ainhoa Arteta** sopranoa, **Juan Martinez de Irujo** pilotaria, Real futbol taldea, Karlos Argiñano sukaldaria, **La Oreja de Van Gogh** taldea, **Kalakan taldea**, **"Loreak"** filmeko protagonistak, **Aritz Aranburu** surflaria edota **Eneko Atxa** sukaldaria.

TEMAS [Euskera](#)

 Recibe nuestras newsletters en tu email

Apúntate

Lo + leído

El Diario Vasco

Gipuzkoa

[Top](#)

[50](#)

- 1** [Buscan en Donostia a una guineana y a su hijo de diez meses, en tratamiento por un tumor](#)
- 2** [«Vivo con dos carros de compra en cada pierna»](#)
- 3** [Munilla recibe un aluvión de críticas por sus ataques al feminismo](#)
- 4** [Un perro por cada siete guipuzcoanos](#)
- 5** [«Limpiar es tan duro como trabajar en la construcción»](#)